



www.ornitho.eus

www.ornitho.eus Plataforma. 2016. urteko balantzea.

Juan Arizaga¹, Beñat Diaz¹

¹Aranzadi Zientzia Elkartea, Zorroagagaina 11, 20014 Donostia

Harremanetarako: jarizaga@aranzadi.eus

Txosten hau honela aipatu:

Arizaga, J., Diaz, B. 2016. *www.ornitho.eus Plataforma. 2016. Urteko balantzea*. Argitaratu gabeko txostena.

Aranzadi Zientzia Elkartea.



ARANZADI

zientzia elkartea . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences



www.ornitho.eu proiektua honen iriziatiba bat da:



ARANZADI

zientzia elkarteak . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences

KOLABORATZAILEAK:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



FINANTZIAZIOA:



ARANZADI

zientzia elkarteak . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences



www.ornitho.eus



AURKIBIDEA

SARRERA: WWW.ORNITHO.EUS ATARIA..... 5

6

¡Error! Marcador no definido.

7

8

10

11

13

14

¡Error! Marcador no definido.

17

¡Error! Marcador no definido.

OHAR GARRANTZITSUA: *www.ornitho.eus* plataforma etengabe eguneratzen denez, edozein erabiltzailek edozein unetan iraganeko behaketak gehitu ditzazke. Honela, txosten honetan agertzen diren estatistikak, ekarpen zenbatekoari, denboraren, taxonomiaren eta geografiaren araberrako ekarpenen banaketari buruzkoak eta hegazti negutarrei buruzkoak, 2017. urteko urtarrilaren 5ean, goizeko 11.00etan egindako kontsulta batean oinarritzen dira. Txosten honetan ageri diren estatistiken edozein aldaketa gerora gehitutako behaketen ondoriozkoa izango da.



SARRERA: WWW.ORNITHO.EUS ATARIA.


Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) pertsona eta elkarte ezberdinez osatutako sare garrantzitsu bat du, urtero faunaren aipamen ugari jasotzen dituen lurralde guztian zehar. www.ornitho.eus ataria, Aranzadi Zientzia Elkartearen inizatiba dena (www.aranzadi.eus), EAEn faunaren erregistroa, datuen hedapena eta kontsulta erraztuko duen erraminta moduan sortu da.

Bere sorreratik, www.ornitho.eus atariak izaera publikoa izan du. Horregatik, sistemako datuak erregistratuta dagoen edozein erabiltzailek eskuratu ditzake. Testuinguru honetan, ataria Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemari (ENIS) lotuta dago, Eusko Jaurlaritzak kudeatutakoa.

Bestalde, www.ornitho.eus ataria “ornitho”-ren parte da, Suitzan sortutako ideia, herrialde honetako hegaztien aipamenak biltzeko gunea bezala sortua. Gaur egun, “ornitho” Europako herrialde edo eskualde askotan ezarri da (1. irudia). 2016. urteko beritasun moduan, Kroazia sartuko da laister eta Frantzia osorako atari bat sortuko da.

1. irudia. Faunaren behaketen aipamenak erregistratzeko (bai hegazti, baita beste taldeenak ere, atarien arabera) “ornitho” ataria duten lurraldeak (2016an eguneratua).

Iturria: www.biolo vision.net.





KIDEAK.

www.ornitho.eus ataria elkarlanean landutako proiektu bat da eta bertan partikularrek zein naturaren kontserbazioari loturiko erakunde ezberdinek hartzen dute parte. 2016. urte bukaeran 16 erakundek kolaboratzen dute plataforman, Aranzadi Zientzia Elkartearen barne. Hauek dira:

Administrazio Publikoak:

- ✓ Eusko Jaurlaritza.
- ✓ Arabako Foru Aldundia.
- ✓ Bizkaiko Foru Aldundia.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundia.

Elkarteak:

- ✓ Aranzadi Zientzia Elkartearen.
- ✓ Arkamurka Natur Taldea.
- ✓ Itsas Enara Omitologi Elkartearen.
- ✓ Suspergintza Elkartearen.
- ✓ "Txepetxa" hegaztien zientzi-eraztunketarako elkartearen.
- ✓ Urdaibai Bird Center (Aranzadi Zientzia Elkartearen barruan).
- ✓ Zerynthia elkartearen.
- ✓ Ambar Elkartearen.
- ✓ Arabako Natur Institutua.

Fundazioak eta bestelako erakunde publiko eta erdi-publikoak:

- ✓ Cristina-Enea fundazioa (Donostiako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia).
- ✓ Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (Vitoria-Gasteizko Udala).
- ✓ Geoparkea Euskal Kostaldea.

Kideen kolaborazioa, erakunde bakoitzaren alorraren arabera, hainbat lanetan oinarritzen da, hala nola, www.ornitho.eus plataforma promozionatzea, behatzaileen heziketa (espezieak identifikatzeko), datuak (behaketak) plataforman sartzea edo aipamenei egiaztatzea.



BEHAKETEN EGIAZTAPENA.

Ornithok aurkezten duen abantailetakoa bat Egiaztatze Batzorde baten existentzia da. Aritu talde batek osatzen du batzorde hau eta zalantzazkoak diren behaketa guztiak berrikustea du helburu. Hau, gehienetan, identifikatzea zaila den espeziekin gertatzen da, edo hegaztiren bat EAEn ez-ohikoa den denboraldi batean behatua izan denean. Egiaztatze prozesuan, erabiltzaileei informazio gehiago eman dezaten eskatzen zaie identifikazioa errazteko eta aipamena ontzat hartzeko (gehienetan gertatzen den moduan).

Egiaztatze Batzorko kideek egiten duten lana altruista da eta beraz, erabateko esker ona merezi dute. Hauexek izan dira 2016. urtean Egiaztatzen Batzordeko kideak (alfabetikoki ordenatuak):

- ✓ J. Aihartza (saguzarrak).
- ✓ A. Aldalur (hegaztiak).
- ✓ J. Arizaga (guztiak).
- ✓ M. Azpiroz. (landareak).
- ✓ G. Belamendia (hegaztiak).
- ✓ C. Cabido (anfibioak eta narrastiak).
- ✓ D. Calleja (hegaztiak).
- ✓ S. de Juan (hegaztiak).
- ✓ R. Escobés (lepidopteroak).
- ✓ M. Etxaniz (hegaztiak).
- ✓ J. Ferreres (hegaztiak).
- ✓ J. A. Gainzarain (hegaztiak eta odonatuak).
- ✓ Y. García (landareak).
- ✓ I. Garin (anfibioak eta narrastiak).
- ✓ H. González (hegaztiak).
- ✓ J. González (ugaztunak).
- ✓ A. Gosá (anfibioak eta narrastiak).
- ✓ A. Herrero (hegaztiak).
- ✓ M. Iglesias (anfibioak eta narrastiak).
- ✓ S. Lorenzo (lepidopteroak).
- ✓ A. Luengo (hegaztiak).
- ✓ E. Marcos (zetazeoak).
- ✓ I. Mezquita (lepidopteroak, odonatuak).
- ✓ Y. Monasterio (lepidopteroak).
- ✓ G. Ocio (hegaztiak, zetazeoak).
- ✓ L. Pelozuelo (himenopteroak).
- ✓ J. M. Pérez de Ana (denak).
- ✓ I. Sarabia (hegaztiak).
- ✓ X. Saralegi (hegaztiak).
- ✓ A. Unanue (hegaztiak).
- ✓ I. Zuberogoitia (hegaztiak).



ERABILERA ESTATISTIKAK

2016. urtean zehar, www.ornitho.es plataforma 10.160 erabiltzaile ezberdinek (IP) kontsultatu zuten, 54.406 saio hasi zituzten eta 681.255 orrialde bisitatu. Horrela, 2016 urtean 3.382 erabiltzale gehiago izan dira 2015 urtearekin konparatuta (hau da, %50 gehiago). 2016. urtean, saio bakoitzeko 12,52 orrialde ikusi ziren batazbeste. Saioko iraupena 05:52 minutukoa izan zen. %18,0 saio berri lortu ziren, %82,0 izanik gainontzeko saioak, itzulitako erabiltzaileek egindakoak (hau da, jadanik ataria kontsultatua zutenak). Honekin, 2015ean lortutako balio estatistikoak berdintzen dira.

Perfil soziologiko batetik aztertuta, 2015ean erregistratutako eredia sendotzen da, 35 urte azpikoak izanik berriz ere saio gehien hasi dituztenak (%61). 65 urtetik gorako erabiltzaileek saioen %5,5 hasi zituzten. Generoari dagokionez, aurreko urteko estatistikak errepikatzen dira, saioen %54,15 gizonezkoek hasi zituzten eta %45,85 emakumeek.

Jatorriari dagokionez, ataria 85 herrialdetan kontsultatu da. Saioen %86,8 (47.231) Espainian burutu ziren. Frantziak jarraitzen dio %10,0eko balioarekin (5.419 saio). Gainontzeko herrialdeetatik irekitako saioak ez dira %1era iristen herrialde bakoitzean, eta gehituta %3,2-ko balioa lortzen dute.

Hizkuntzari dagokionez, saioen %82 gaztelaniaz ireki ziren eta %10, %3,2 eta %2,2 frantsezez, ingelesez eta euskeraz, hurrenez hurren.

ERABILTZAILE KOPURUA.


2016ko abenduaren 31rako erregistratutako erabiltzaile kopurua 721 da eta 2016. urtean alta eman zutenen kopurua 278. 2016ko urtariletik emandako alden denboraren arabera banaketa 2. irudian behatu daiteke.

Erabiltzaileen jatorriari dagokionez %50 inguru EAE-tik kanpoko guneeetatik datoz. Ehuneko honen parte bat "ornitho"-ren beste atarietako erabiltzaileena edo EAE-tik gertu bizi diren




personena da. Izan ere, hauek EAEn egin dituzten behaketak sartu ditzazkete atarian edo, besterik gabe, EAEn ematen diren behaketei buruzko interesa izan dezakete.

2. irudia. 2016an erabiltzaileek www.ornitho.eus-en egindako alden erlazioa.



www.ornitho.eus ataria lau hizkuntzetan eskaintzen da: gaztelaniaz, euskeraz, frantsesez eta ingelesez. Aukeratutako hizkuntzari dagokionez, 411 erabiltzailek (hau da, %57,0) gaztelania aukeratzen dute komunikatzeko tresna gisa. Ondoren euskera eta frantsesa dira aukeratuenak, %19,6 eta %18,0 hurrenez hurren. Bukatzeko 39 erabiltzailek aukeratu dute ingelesa lehentasuneko hizkuntza gisa (3. irudia).

3. irudia. www.ornitho.eus atarian alta emandako erabiltzaileen lehentasuneko hizkuntza, 2016ko abenduaren 31an eguneratua. Laburpena: ES, gaztelania; EU, euskera; FR, frantsesa; EN, ingelesa. Laginaren tamaina: 721.






EKARPEN KOPURUA: ESTATISTIKA OROKORRAK.

2016ko abenduaren 31an plataformako behaketa kopuru totala 203.016 da (onartu ez diren aipamenak eta egiaztatze prozesuan daudenak ez dira kontutan hartzen), hau da, 2015eko abenduko 31rako emandakoak baino ia %130 gehiago. Horietatik 109.510 (hau da, %54) 2016an gauzatu ziren.

Erabiltzaile bakoitzeko ematen den behaketen erlazioari dagokionez, eredu asimetriko positibo bat antzematen da, hau da, erabiltzaile gehienek 100 behaketa baino gutxiago burutu zituzten eta gutxiengoa dira behaketa asko erregistratu zituztenak (4. Irudia). Joera hau ohikoa da www.ornitho.eus bezalako proiektuetan.

4. irudia. Erabiltzaileen banaketaren frekuentzia www.ornitho.eus-era eskegitako behaketen kantitatearen arabera (kopurua). Irudi hau egiteko alde batera utzi dira onartu ez diren aipamenak, egiaztatze prozesuan daudenak eta bitartekoak emandakoak.



2016an behaketen errekorra J. Espaciak lortu zuen berriz ere, 17.214 behaketekin, horietako ia guztiak Plaiaundiko Parke Ekologikoan ikusitako hegaztienak. Oro har, 19 erabiltzaile egon ziren 1000 behaketa baino gehiago partekatu zituztenak (1.taula).



1 taula. 2016an 1.000 behaketa baino gehiago egin zituzten lehen hamar erabiltzaileen behaketa kopurua. Taldeak: HEG, hegaztiak; UGL, ugaztunak (lurtarrak); IGI, ugaztunak (itsastarrak); SAG, saguzarrak; ANF, anfibioak; NAR, narrastiak; ODO, odonatoak; LED, lepidopteroak (egunekoak); LEN, lepidopteroak (gautarrak); HIM, himenopteroak (liztor asiaticoa); MUS, bibalboak (zebra-muskulua), LAN, landare exotiko inbaditzaileak. Bigarren eskuko datuak, baztertutakoak eta egiaztatze prozesuan daudenak ez dira kontuan hartu.

	J. Esparcia	S. Alarcón	E. Azkue	K. Aldama	Urdaibai B. C.	Ik. Novoa	Iñ. Novoa	P. Oyarzabal	I. Zuberogoitia	D. Navas
HEG	17.186	12.455	9.054	8.886	6.897	5.076	6.439	2.813	2.746	2.465
UGL	6	34	10	33	8	202	16	18	54	46
UGI	0	3	0	2	0	0	0	1	1	0
SAG	0	1	1	0	0	0	0	0	0	0
ANF	5	10	0	6	0	481	0	2	2	1
NAR	14	78	1	8	0	43	0	0	6	1
ODO	0	163	0	3	0	63	0	0	0	1
LED	1	995	1	33	0	606	1	0	8	10
LEN	2	0	0	0	0	104	0	0	0	0
HIM	0	38	0	2	0	19	0	1	0	0
MUS	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0
LAN	0	174	0	0	0	28	4	0	0	0
Total	17.214	13.952	9.067	8.973	6.905	9.622	9.460	2.835	2.817	2.524

Bestalde, atariak dagoeneko argazki eta soinu grabaketa ugari biltzen ditu (4.500 dokumentu baino gehiago), batez ere hegaztienak. Horrela, 306 hegazti espezieren argazkiak daude jada, hau da, atarian erregistratuta dauden espezieen %75a baino gehiago. Grabaketei dagokienez 32 espezierenak daude (28 hegazti, 3 anfibio eta ugaztun lurtar bat). Informazio gehiago nahi izanez gero begiratu argazki eta soinuen galeria.


EKARPENEN BANAKETA DENBORAREN ARABERA

Denborari dagokionez, urteko ekarpenen maximoa apirilean eman zen 12.514 aipamenekin (5. irudia), 2015ean eman zen joerarekin bat egiten duena. Maximo hau seguruenik bi arrazoi nagusiri dagokio: apirilean gertatzen da umatze aurreko hegazti pasea, eta ondorioz espezie eta



indibiduo ugari aurkitzen diren hilabetea da; bestalde, apirila aldera udaberria antzematen hasten da, tenperaturak epeldu egiten dira eta egunak luzatu, eta bi baldintza hauek animatu egiten dute mendira edo landara ateratzera, neguko hilabete gogorrek eragindako geldialdia pasa eta gero. Urteko minimoa otsailean behatu zen (6.857 behaketa). Ekaina eta abendu arteko hilabeteetako behaketa kopurua egonkor mantendu zen, hilabeteko batezbestekoa 8.500 behaketa baino zertxobait gutxiago izanik, abuztuan eta irailean izan ezik, hauetan hilabeteko 9.300 behaketa erregistratu baitziren. Orokorrean, hilabeteko aipameneren batezbestekoa 2016an 9.155ekoa da, hau da, aurreko urtean baino 3.138 behaketa gehiago batezbeste.


5. irudia. 2016an www.ornitho.eus atarian erregistratutako behaketen kopurua. Analisitik kanpo utzi dira onartu gabeko aipamenak eta egiaztatze prozesuan daudenak.



Datuak asteka banatuta, 2015ean aipameneren erregistroak jarraitutako eredu bera behatzen dugu, nahiz eta eguneko aipameneren batazbesteko erregistroa zerbait igo den. Zehazki, lanegunetan 250 behaketa baino gehiago erregistratzen dira egunero, larunbatetan ia 350era igotzen dira eta igandeetan ia 450 dira (6. irudia). Argi eta garbi, 2015 urtean zehar lortutako eguneko batazbestekoa hobetzen da (eguneko batezbeste 200 behaketa baino gutxiago eta igandeetan batezbeste 250 ekarpen egin baitziren). Markak hausten dituzten zifrei dagokienez, eguneko behaketen maximoa 2016.04.17an erregistratu zen, igandea, 904 aipamenekin, talde guztietako erregistroak kotuan harturik. Bitxitasun bezala aipatu dezakegu 2015eko maximoa data antzekoetan eman zela, 2015.04.12an hain zuzen ere.



6. irudia. Astean zehar emandako behaketen batezbestekoa 2016an. Analisisik kanpo geratu dira onartu gabeko aipamenak eta egiaztatze prozesuan daudenak.



BEHAKETEN BANAKETA TAXONOMIAREN ARABERA

2.taula. www.ornitho.eus plataforan 2016an eta aurreko urteetan burututako behaketa kopurua taxoi bakoitzeko. Kanpoan geratu dira onartu gabeko aipamenak eta egiaztatze prozesuan daudenak.

	2016	2016 baino lehen
Hegaztiak	103.013	88.777
Lepidopteroak (egunekoak)	2.905	1.769
Ugaztunak (lurtarrak)	946	797
Odonatuak	938	1.400
Narrastiak	404	288
Landare exotiko inbaditzaileak	238	0
Anfibioak	294	294
Lepidopteroak (gautarrak)	111	14
Himenopteroak (liztor asiaticoa)	99	124
Saguzarrak	33	10
Ugaztunak (itsastarrak)	27	19
Moluskuak (zebra-muskulua)	1	6
GUZTIRA	109.510	93.506



Talde taxonomikoei dagokienez hegaztiak dira, alde handiarekin, behaketen gehiengo metatzen dutenak (2. taula). Horrela, 2016an behaketen %94a hegaztienak izan zen, 2015an behatutako kopuru ia bera. Orokorrean, espezieei dagokienez, 598 erregistratu ziren guztira (3. taula).

3. taula. Espezie edo taxoi kopurua (generoak) 2016an aipatutakoak eta guztira. Kalkulu hauek egiteko generoa edo familia soilik agertzen zen aipamenak (adib. *Anas* sp. edo *Anatidae*), zein barietate etxekotuak (adib. *Anas platyrhynchos f. domestica*), hibridoak eta subespezieak agertzen ziren aipamenak ezabatu dira. Halaber, ezabatu egin dira onartu gabeko aipamenak eta egiaztatze prozesuan aurkitzen direnak.


	2016	Guztira
Hegaztiak	325	362
Ugaztunak (lurtarrak)	31	34
Ugaztunak (itsastarrak)	7	9
Saguzarrak	8	9
Narrastiak	24	26
Anfibioak	12	15
Odonatuak	48	51
Lepidopteroak (egunekoak)	115	120
Lepidopteroak (gautarrak)	12	16
Himenopteroak (liztor-asiatikoak)	1	1
Moluskuak (zebra-muskuilua)	1	1
Landare exotiko inbaditzaileak	14	14
GUZTIRA	598	658

BEHAKETEN BANAKETA GEOGRAFIKOA.

Orokorrean, eta hegaztiei dagokionez, hau baita aipamen gehien biltzen dituen taldea, 2016an erregistratutako behaketen banaketak (7. Irudia) aurreko urteko estaldura hobetzen du, jadanik handia zena. Hala ere, arreta jartzen badugu, eremu batzuk ikusten dira estaldura oso txikia edo nulua dutenak. Hau, argi eta garbi, Gipuzkoa eta Bizkaia barnealdeko eremu batzuetan gertatzen da, hala nola, Arabako erdi-hegoaldean, estaldura okerrena duen eskualdea, argi eta garbi.



7. irudia. 2016ean www.ornitho.eus plataforman erregistratutako hegaztien behaketen banaketa geografikoa.



4. taula. 2016ean EAE-ko probintzia bakoitzean egin ziren behaketen kopurua. Trebiñuko Konderriko behaketak Araba bezala zenbatu dira. Ezabatu egin dira onartu gabeko aipamenak eta egiaztatze prozesuan aurkitzen direnak. Ugaztun itsastarrak kanpoan utzi dira.

	Gipuzkoa	Bizkaia	Araba
Hegaztiak	52.734	31.830	18.449
Ugaztunak (lurtarrak)	484	253	209
Saguzarrak	27	5	1
Narrastiak	186	141	77
Anfibioak	611	102	82
Odonatuak	674	145	119
Lepidopteroak (egunekoak)	624	817	1.464
Lepidopteroak (gautarrak)	104	0	7
Himenopteroak (liztor-asiatikoa)	31	59	9
Moluskuak (zebra-muskuilua)	0	0	1
Landare exotiko inbaditzaileak	52	177	9
GUZTIRA	20.427	33.529	55.527




Probintziako, Gipuzkoa izan zen, datuen %50a bilduz, 2016an behaketa gehien pilatu zituen probintzia (4.taula), nahiz eta 2015. urtearekin konparatuta beharakada txiki bat izan zuen (%54), 2016an beste bi probintzietan eman zen erregistroen gorakadak azaltzen duena. Taldeka, hala ere, Gipuzkoari irabazten dio Arabak lepidoptero gautarrekin (%50) eta Bizkaiak liztor-asiatikoarekin (%60) eta landare exotiko inbaditzaileekin (%74) (4. taula).

Denera, EAE-ko 268 herri dira gutxienez behaketa bat dutenak (263 2015ean). Guztietatik aipagarria, berriz ere, Irunen kasua da, 2016an 24.112 behaketa erregistratu baitzituen, batez ere Plaiaundiko Parke Ekologikoko datuen aportazioari esker. Hurrengo herria, 9.044 aipamenekin, Gautegiz-Arteaga da, Urdaibaiko Oruetako Urmaeleko datuen ekarpenari esker. Irungo erregistroek EAE-ko 2016ko aipamenen %22,2 suposatzen dute, 2015 urtearekin alderatuta jaitسي egin dena.

HEGAZTI HABIA-EGILEEN ATLASA

8. irudia. 2016ean, EAEn, 10x10 km²-ko UTM kuadrikulatan topatutako espezie habia-egileen kopurua laburbiltzen duen mapa. Kuadríkula bakoitzean habia egitea posiblea, probablea eta ziurra duten espezieak barne hartzen dira.





Hegaztietan, www.ornitho.eus plataformak kode bat sartzea ahalbidetzen du, "atlas kodea" deitua, habia egiteko garaian, habia egitea posiblea, probablea ala ziurra den determinatzeko. Era honetan, EAEko hegazti habia-egileen mapa bat eraikitzea ahalbidetzen da (8. irudia). 2016. urtean zehar habia egiteari buruzko datuak 10x10 km²-ko 96 UTM kuadrikulatan bildu ziren. Espezie gehien izan zituen kuadrikula Gipuzkoako ipar-ekialdeko sektorekoa izan zen (86 espezie), zeinak Txingudiko padurak barne hartzen dituen. Kuadrikula honetan habiagintza posiblea behatu zen 25 espezietan, probablea 21 espezietan eta ziurra 43 espezietan. Agerian jartzen da datu falta ia Ebroko haran osorako, Arabako hego-mendebaldean. Habia egileei buruzko informazioa, www.ornitho.eus atarian bildu dena, Euskadiko Hegazti Habi-Egileen Atlas-era gehituko da, jadanik martxan dagoena.

HEDAPENA.

2016. urtean zehar hainbat ikastaro egin ziren behatzaileen prestakuntza hobetzeko, batez ere talderik ezezagunentzat edo aipamen gutxiago duten taldeentzat. Bereziki aipagarriak:

Odonatuak:

- ✓ Gorbeako odonatuak: hitzaldia eta irteera. Murgiako interpretazio zentroa (Gorbeiko P.N) 2016/04/02an gauzatua.
- ✓ Odonatuen identifikaziorako mintegia. Plaiiaundi (Txingudi, Gipuzkoa). 2016/05/14 eta 2016/06/18an gauzatua.
- ✓ Aralarko odonatuak. Hitzaldia eta irteera. Lizarrustiko Aralar Parketxea. 2016/05/21ean gauzatua.

Herpetofauna:

- ✓ Anfibioei buruzko hitzaldia, gaueko irteera eta beraien identifikaziorako ikastaroa. Oñatiko Kultur Etxea (Oñati, Gipuzkoa). 2016/02/26-27an gauzatua.
- ✓ Anfibio eta narrastien identifikazioa: hitzaldia eta irteera. Lizarrustiko Aralar Parketxea. 2016/05/20ean gauzatua.

Era berean, izaera zientifikoko kongresu eta bileretan plataforma sustatu da, ahozko ekarpenekin edo posterrekin:



- ✓ Arizaga, J. 2016. Hiriko zientzia eta hegaztiak Euskadin: www.ornitho.eus ataria eta hegazti habia-egileen atlasa. Euskadiko Kongresu Ornitologikoa. Busturia (Bizkaia). 2016/02/26-28an gauzatua.
- ✓ Arizaga, J. 2016. www.ornitho.eus plataforma. Urte bateko historia. Ataria (Vitoria-Gasteizko udala). 2016/03/10ean gauzatua.
- ✓ Mezquita, I. 2016. Odonatuak eta ingurune urtarren kontserbazioa. Jardunaldi Teknikoa mehatxatutako espezieen kontserbazioari buruz: diagnostikoa eta konponbidea. Plaiaundi (Txingudi, Gipuzkoa). 2016/01/28an gauzatua.
- ✓ Mezquita, I. 2016. Euskal Herria: korridore natural bat. Odonatologiaren Sinposioa. Vielha (Katalunia) 2016/06/15-17an gauzatua.
- ✓ Zorrozueta, N. 2016. www.ornitho.eus ataria: oraina eta etorkizuna. III Ingurugiro eta Hiriko Zientzien Jardunaldiak. Bilbo. 2016/10/14-16ean gauzatuak.

Bestalde, plataforma promozionatzearren urriko lehenengo astebururako (Hegaztien astearekin kointzidituz) Euskadiko II. Maratoi Ornitologikoa antolatu zen. SEO/BirdLife (Euskadiko delegazioa), Ataria zentroa (CEA, Vitoria-Gasteizko udala), Urdaibai Bird Center, Euskadiko Biodibertsitate Zentroa eta Plaiaundiko Parke Ekologikoaren lankidetzarekin, 24 ordutako jardunaldia gauzatu zen, 2016ko urriaren 1ean, larunbatean.

Era berean, Android, NaturaList (Google Play-ean eskuragarri daudenak) gailuetarako aplikazioaren funtzionamendua erakusteko lau bideo sortu ziren. Bideo hauek Youtubera igo ziren, honako izenburu hauekin:

- ✓ NaturaList. (1). Nola sartu aipamen bat?
- ✓ NaturaList. (2). Nola sortu zerrenda oso bat?
- ✓ NaturaList. (3). Behaketak ikustarazi
- ✓ NaturaList. (4). App-aren lehentasunak eta konfigurazioa



www.ornitho.eus

ESKER ONAK

www.ornitho.eus plataforma proiektu kolektibo bat da eta, ondorioz, atari honen arrakasta haien aipamenekin laguntzen duten guztien meritua da. Eskerrik asko guzti horiei, haien lanarekin EAEko faunari buruzko ezagutza hobetzen laguntzeagatik. Eskertu egin behar da, era berean, Eusko Jaurlaritzaren babesari, eta bereziki bere Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarena, plataformaren finantziazioan laguntzeagatik.